



# GERNIKA-LUMO



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Zilarrezko hondoan, ohorezko puntuan, zin egiteko tribuna kolore naturalean, eta, ganean, gailendua, haretx berdea enborra berezko kolorean dauala eta zelai berdean. Behealdeko bandan inskripzio hau: “*Gernika-Lumo*”.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de plata, un temple ó tribuna juradera a su color natural en el punto del honor y brochante un roble de sinople con el tronco a su color y terrasado de sinople. Una banda inferior indica la leyenda: “*Gernika-Lumo*”

## AITAMEN HISTORIKOA

Gernikako uria izen bereko itsasadarraren ertzean dago eta XIV. mendean sortu zan; bertan dago milaka urte dituen arbola, euskaldunen askatasunen ikurra hain zuzen.

Gaur egun Gernika-Lumokoak diran lurretan Bizkaian inoiz izan diran gizakirik aintxinakoenak bizi izan ziran. Historiaurreko gizakien aztarnak aurkitu dira; horreetariko garrantzitsuenak Santimamiñeko kobatan aurkitutako auriñaziense garaiko aztarnak dira, baina beste aztarnategi batzuk be badagoz, eta horrek argi isten dau lurralde horretan oso antxinatik bizi izan zirala giza-kiak.


Antxina Lunoko eleizatea be bazan; Jaurerriko Batzar Nagusietan seigarren eserlekua eta botua eukazan, eta eleizate horretan, itsasadarraren ertzean, Gernikako portua egoan. 1366ko apirilaren 28an Tello Bizkaiko jaunak Urduñan emondako pribilegioaren bidez, Gernikako uria sortu eta Logroñoeko forua emon eutsan.

## RESEÑA HISTÓRICA

La villa de Gernika, que acoge al milenario árbol, símbolo de las libertades vascas, y que fue fundada en el siglo XIV, se levanta a la ribera de la ría que lleva su nombre.


La comarca que ocupa hoy en día es una de las zonas de más antiguo poblamiento de Bizkaia. En ella se encuentran restos de poblamientos prehistóricos, los más importantes de éstos los de la cueva de Santimamiñe, de época auriñaziense y otros yacimientos de diversas épocas que prueban el establecimiento de población en la zona desde épocas muy antiguas.

Primitivamente existía la anteiglesia de Luno, que ocupaba el sexto asiento y voto de las Juntas Generales del Señorío y, enclavado dentro de ella, el pequeño puerto de Gernika, junto a la ría. El 28 de abril de 1366 Don Tello, señor de Bizkaia por privilegio fechado en Orduña, funda la villa de Gernika a la que otorga el fuero de Logroño.



## IKURRIÑA

Deskribapena: bandera gorria, banda zuria dauala diagonalean eta armarría erdian.



## BANDERA

Descripción: bandera roja, con banda blanca diagonal y el escudo en el centro.